

BILBOKO GAZTE PANELA 2024

1. SARRERA

Gazteria eta Kirol Sailak **2024ko Bilboko Gazte Panela** jarriko du abian. Edizio honetan, Bilbon bizi diren 18 eta 30 urte bitarteko 24 gaztek osatuko dute Gazte Panela: 2023ko paneleko parte-hartzaileen artean 12 hautatuko dira, eta interesdunen artean, beste 12 parte-hartzaile berri.

Gazte Panelaren helburu nagusia gazteen tokiko agendaren diseinuan parte-hartzea sustatzea da.

Edizio honetan eta 2030 Agendaren tokiko garapenean, eremu hauekin lotutako proiektuetan lan egingo dugu:

1. **Jasangarritasun soziala:** ekitatea, genero-berdintasuna, dibertsitatea, boluntarioria, etab.
2. **Ingurumen-jasangarritasuna:** ekologia, ekonomia zirkularra, etab.
3. **Gazteentzako programazioa:** musika, kultura, kirola, aisialdia, etab.
4. **Udal-komunikazioa:** gazteen eta Bilboko Udalaren arteko elkarreragina hobetzea.

2. PARTE-HARTZAILE BERRIEN AUKERAKETA

Aukeraketa Gazteria eta Kirol Sailak egingo du, 2023ko ediziotik jarraitzen duten parte-hartzaile gazteen laguntzaz. Hautaketa horretan ahalik eta aniztasun handiena bilatuko da, honako irizpide hauen arabera: sexua, adina, kultura-jatorria, barrutia, ikasketa-maila, lan-jarduera, motibazioa, interes-eremua, etab. Hautatzen ez diren gazteekin parte-hartzaileen poltsa bat sortuko da, sor litezkeen bajak betetzeko.

3. FUNTZIONAMENDUA

Panelak talde-saioen eta proiektuen arabera funtzionatuko du.

1. Talde-saioak

Bost larunbatetan egingo dira, modu presentzian, 10:00etatik 13:00etara, La Perrera eraikinean (Sabino Arana, 50). Saio horietan, Gazte Paneleko kide guztiak hartuko dute parte, eta proiektuen garapena partekatzeko eta Udalak esku-hartze eremu horietan egiten duena ezagutzeko balioko dute.

Talde-saioen gutxi gorabeherako egutegia:

1. Otsailaren 24a, larunbata
2. Martxoaren 16a, larunbata
3. Maiatzaren 4a, larunbata
4. Irailaren 21a, larunbata
5. Urriaren 26a, larunbata

2. Proiektuak

Paneleko kideak 4 taldetan banatuko dira, aurreinskripzioan hautatutako interes eta gaien arabera. Talde bakoitzak proiektu bat proposatuko du, urtean zehar garatuko duena, udal-programazioan txertatzeko helburuz. Ideia proiektu bihurtu aurretik, proposamena udaleko sail eskudunarekin kontrastatu beharko da, haren egokitasuna eta bideragarritasuna aztertzeko. Proiektua garatzeko, taldeek aholkularitza jaso ahal izango dute prozesuan.

4. BALIABIDE EKONOMIKOAK

1. Parte-hartzaileentzako diru-ordaina

- 50 €, taldeko saio bakoitzean parte hartzeagatik.
- Talde bakoitzak 250 € izango ditu parte-hartzaile bakoitzeko, eta taldeak erabakiko ditu zenbateko hori banatzeko irizpideak.

Pertsona bakoitzari dagokion zenbatekoa Gazteria eta Kirol Sailak ordainduko du, Panelaren azken saioa amaitu ondoren. Edozein kidek utzi ahal izango du Gazte Panela, bere borondatez (edo Gazteria eta Kirol Sailak eskatuta, ez baldin badu konpromiso sendoa erakusten Gazte Panelaren helburuekin). Kargua justifikaziorik gabe uzten badu, ez du inolako konpentsazio ekonomikorik jasotzeko eskubiderik izango.

2. Proiektura bideratutako baliabide ekonomikoak

Talde bakoitzak gehienez 2.000 euroko poltsa ekonomikoa izango du, eta proiektua garatzeko erabiliko du, modu justifikatuan.